

Hilabeteak

Abestu eta irakurri.

Urtarrila lehena,
bigarren otsaila,
hirugarren martxoa,
gero apirila.

Maiatza jakin ezazu
da bosgarren hila,
seigarrena ekaina,
ondoren uztaila.

Abuztua guretzat
hilabete ona.

Iraila eta urria
gora udazkena!
Azaroa nola den
hamaikagarrena,
azkena abendua
hamabigarrena



1. Idatzi hilabeteen izenak ordena egokian.

Urtarrila			
	Ekaina		

Ikusi hilabete bakoitzak zenbat egun dituen.

**Hogeita hamar egun irailak,
azaroak, ekainak eta apirilak.
Hogeita zortziko otsaila. Eta
hogeita hamaika besteek.**



2. Idatzi 30 egun dituzten hilabeteen izenak baina ordenaturik. Nahi baduzu, erabili egutegia.

3. Idatzi 28 egun dituen hilabetearen izena.

--

4. Idatzi ordenaturik 31 egun dituzten hilabeteen izenak. Nahi baduzu, erabili egutegi bat.

